


# Erabiltzeko jarraibideak



euskaltel 

# AURKIBIDEA

---

<b>AURKIBIDEA</b> .....	<b>2</b>
<b>1 – Sarrera</b> .....	<b>3</b>
<b>2 – Martxan jartzea</b> .....	<b>4</b>
<b>3 – Programazioari buruzko informazioa</b> .....	<b>7</b>
<b>4 – Mirador zerbitzua</b> .....	<b>8</b>
<b>5 – Informazio xehea</b> .....	<b>10</b>
<b>6 – Segurtasun-argibideak</b> .....	<b>13</b>
<b>7 - Arazoak konpontzea</b> .....	<b>14</b>
<b>8 – Datu teknikoak</b> .....	<b>15</b>

## 1 – SARRERA

---

- Deskodetzaile hau erraz instalatzen eta erabiltzen da.
- Eskuliburu honetan deskribatutako zerbitzu guztiak erabiltzeko, ezinbestekoa da Euskaltelen txip-txartel bat aktibatuta eta deskodetzaile honi esleituta edukitzea. Txartelik ez baduzu, eskatu doan Euskaltelen hurbileko dendaren batean edo deitu 1717ra.

**KONTUZ: 'Txip txartela' ( 'SmartCard txartela' ere esaten zaio) deskodetzailearen aurrealdeko karatularen atzeko zirrikitan sartu behar da, urre-koloreko txipa behera begira duela.**

- Deskodetzaile hau kable bidezko sareetan bakarrik ibiltzen da. Kasu honetan, Euskaltelen sarerako diseinatuta dago. Euskaltelen kable bidezko sarearen bezero ez bazara, alta eman beharko duzu tresnaren zerbitzuak erabili ahal izateko.
- Euskaltelek eskubidea du zure deskodetzailearen softwarearen bertsioak eguneratzeko, deskodetzaileak Euskaltelen Zuntz Optikozko kable bidezko sarean behar bezala funtziona dezan.
- Hala erabaki eta eskatzen baduzu, deskodetzaile honekin Euskaltelen harpidetutako TB Digitaleko pakete guztiez gozatu ahal izango duzu. Euskaltelek bermatzen dizu deskodetzailea erosi eta gutxienez 4 urtetan harpidetutako TB Digitaleko zerbitzuekin bateragarria izango dela.

## 2 – MARTXAN JARTZEA

---

### 2.1 Instalatzea

- Konektatu Euskaltelen hartunetik ateratzen den kablea (paretako hartunea) deskodetzaileko sarera (deskodetzailearen atzeko aldean dago, eta "EUSKALTELeKO KABLEA" jartzen du).
- Konektatu irrati-maiztasunaren kablea (deskodetzailearen kaxan dago), deskodetzaileko RF ren irteeratik telebistako sarrerara.
- Konektatu Eurokonektorearen kableetako bat, deskodetzailetik (TB konektorea) telebistako Eurokonektorearen sarrerara.
- VHS bideoa edo DVDa baduzu, konektatu Eurokonektorearen beste kablea, deskodetzailetik (DVD/VCR konektorea) zure VHS edo DVD gailura.
- Konektatu elikagai-iturria deskodetzailera eta entxufe elektriko batera.
- Jarri pilak urrutiko aginteari.

### 2.2 Sintonizatzea

- Deskodetzailea instalatzen duzun lehen aldia bada, deskodetzaileak bi informazio eskatuko dizkizu:
  - Urrutiko aginteko geziak eta OK botoia erabilia, hautatu zer hizkuntzatan ikusi nahi dituzun menuak eta programazioari buruzko informazioa: Euskara edo Español.
  - Hautatu Euskal Autonomia Erkidegoko zer lurraldetan zauden. Informazio horrek deskodetzaileari lagunduko dio Tokiko TB digitalen kanalak sintonizatzen (baldin badaude). Nahasten bazara, ez larritu; nahi adina aldiz sintoniza dezakezu deskodetzailea, nahi duzun lurraldean.

Deskodetzaileak kable bidezko sareko kanal digitalak sintonizatuko ditu. Itxaron pixka bat, sintonizatzen ari den bitartean.

Une horretatik aurrera, Euskaltelen kable bidezko TB Digitalaz goza dezakezu.

## 2.3 Konfigurazio-zerbitzua.



Nahi izanez gero, konfigurazio-aplikazioak aukera hauek ematen ditu:

- Deskodetzailearen parametro teknikoak zein diren eta sarearen seinale-maila zein den jakiteko aukera.
- Lehentasunak zehazteko aukera:
  - Hizkuntzak: Zein hizkuntza erabiliko den menuetarako eta programazioari buruzko informaziorako eta, hainbat hizkuntzatan eskaintzen diren programen kasuan (hainbat telesail eta pelikula), zer hizkuntza erabiliko den lehenespenez.
  - Bideo-formatua: 4/3 edo 16/9.
  - Gogorarazleak ezartzeko aukera (saio jakin batzuk hastera doazela jakinarazteko), eta saioa hastera doala zenbat denbora lehenago abisatzea nahi duzun.
- Gurasoen kontrola:

Menu honetan sartzeko, PIN kodea erabili behar duzu. Aldatu ez baduzu, lehenespenez dagoen PIN kodea 0000 da.

- Seme-alaba gaztetxoak badituzu eta hala nahi baduzu, aukeratu ahal izango duzu, saioen sailkapen baten arabera, zer kasutan behar den PIN kodea saioa ikusteko. Deskodetzaileak sintonizatutako saioak zuk finkatutako maila gainditzen badu, ikusleari lau digituko PIN kodea eskatuko dio. Zure seme-alabek ez dute PIN kodea jakin behar.

Erosoagoa gerta dakizun, PIN kodea behin sartu ondoren, ez duzu berriro sartu beharko finkatutako sailkapena gainditzen duen beste saioaren bat ikusteko. Deskodetzailea urrutiko agintearekin itzali eta berriro pizten duzun bakoitzean, deskodetzaileak PIN kodea eskatuko dizu berriro, hala dagokionean.

- Kanal jakin batzuetarako sarbidea blokeatzeko aukera ere baduzu. Kanal horiek ikusteko PIN kodea sartu beharko duzu, emititzen ari diren saioaren sailkapen-maila edozein dela ere.
- Jakina, gurasoen kontrola funtzioa erabili nahi baduzu, PIN kodea alda dezakezu hemen, hemendik aurrera 0000 izan ez dadin eta PIN zuzena helduek bakarrik jakin dezaten.

Konfiguraturako PIN kodea ahaztuz gero, deitu 1718ra eta urrunetik 0000 balioa jarriko dute berriz.

- Gogoko kanalak:

Gogoko kanalen zerrenda egin dezakezu, eta, ondoren, erabaki dezakezu gogokoen kanaleko zerrendako kanalak bakarrik sintonizatu nahi dituzun.

Deskodetzailea itzali eta piztu ondoren, berriro bistaratuko dira kanal guztiak, zerorrek erabaki dezazun kanal guztietan edo gogoko kanaletan bakarrik "zapping egin" nahi duzun.

**OHARRA:** gogoko kanalen zerrendan, gehien erabiltzen den aukeretako bat hau da: Euskaltelen ordainpeko telebistako kanalak kontratatuta ez badituzu eta horietan "zapping egin" nahi ez baduzu, sarbidea duzun kanalekin osatu gogokoen zerrenda. Hartara, harpidetuta ez zauden kanal horiek alde batera utzi ahal izango dituzu.

- Sintonizatzea:

Euskaltelek eguneratzen du parrilla, Zuntz Optikoazko kable bidezko sarean kanal berriak sartzen direnean, eta zuk ez duzu ezer egin beharko. Hala ere, nahi izanez gero, zure deskodetzailea zuk nahi adina aldiz sintoniza dezakezu, adibidez sintonizatu nahi duzun eskualdeko tokiko programazioaren arabera.

Kontuan izan deskodetzailea berriro sintonizatuz gero galdu egingo duzula aurrez ezarrita dituzun gogoko kanalen konfigurazioa.

## 3 – PROGRAMAZIOARI BURUZKO INFORMAZIOA

---

### 3.1 Gida Txikia nabigatzailea

Kanala aldatzen duzun bakoitzean edo urrutiko aginteko informazio-tekla sakatzen duzun bakoitzean, nabigatzaileak ikusten ari zaren kanalei buruzko informazioa bistaratuko du (ez dago programazioari buruzko informazioa kanal guztietan):

- Sintonizatutako kanalaren izena.
- Une horretan emititzen ari diren saioa, generoa eta azpigeneroa eta hasi denetik pasatu den denbora.
- Kanal horretan, ondoren hasiko den saioa.

Oharra: Euskaltelek ezin du bermatu kanal guztiek iragarritako orduan emitituko dituztela beti saioak.

Pantailako nabigatzailearekin: informazio-tekla sakatzen baduzu, emititzen ari diren saioaren informazio gehiago bistaratuko da.

Saioren batek audio-bertsio bat baino gehiago badago, nabigatzaileak belarri baten irudia bistaratuko du. Urrutiko agintean "belarria" botoia sakatuz gero, saioaren audio-hizkuntza hautatu ahal izango duzu.

Oharra: Kasu batzuetan, hainbat hizkuntza aukeran daudela esan arren, kanalek hizkuntza berean emititzen dute.

Nabigatzailea ikusi ezin denean, OK sakatuta kanalen zerrenda osoa bistaratzen da pantailan.

### 3.2 GIDA ZERBITZUA



Aukera honekin, hurrengo bi egunetan zer saio emitituko diren jakin dezakezu.

## 4 – MIRADOR ZERBITZUA

---



Mirador zerbitzuaren bidez estreinaldiko pelikulak, futbol-partidak, helduentzako zinema eta helduentzako gay filmak kontrata ditzakezu, etxetik atera gabe, erraz-erraz.

Bi pauso eman behar dituzu:

- Kontsultatu Mirador zerbitzuan zer pelikula edo partida dauden aukeran, eta apuntatu interesatzen zaizun ekitaldiaren emanaldiari dagokion kodea.
- Bezeroaren etxeko Euskaltelen telefono finkoarekin, deitu pantailan agertzen den doako telefono-zenbakira eta, ondoren, tekleatu partidaren edo filmaren kodea (aurreko pausoa apuntatu duguna).

Eta ondo pasa.

### **1. pausoa. Sakatu Mirador zerbitzuaren botoia, urrutiko agintean.**

Eskuinera eta ezkerrera begira dauden geziekin, hautatu bilatzen ari zaren saioa.

Gora eta behera begira dauden geziekin, hautatu nahi duzun filma edo partida. Pantailaren eskuineko aldean, hautatutako gertaerari buruzko informazio xehea bistaratuko da. Eskuineko beheko aldean hau bistaratzen da:

- Hautatutako filmaren hurrengo emanaldia.
- Zer kanaletan eskainiko den emanaldi hori.
- Filmaren edo partidaren prezioa.
- Telefono bidezko kontratazio-zerbitzu automatikoak hala eskatzen dizunean markatu beharreko kodea.

Interesatzen zaizun emanaldia hurrengoa ez bada, sakatu OK botoia, hurrengo emanaldiak eta horiek kodeak zein diren jakiteko.

### **2. pausoa. Kontratatu filma edo partida, doako dei soil bat eginda.**

Mirador zerbitzuaren ezkerreko beheko aldean, etxeko telefono finkoan markatu beharreko zenbaki laburra bistaratuko da.




Zenbakia markatu duzunean, kontratazio-zerbitzu automatikoak kontratatu nahi duzun filmaren edo partidaren kodea sartzeko eskatuko dizu. Sartu kode hori telefono finkoko teklak sakatuta.

Kontratazio-zerbitzu automatikoak egindako kontratazioa baieztatuko du.

Kontratatutako filma edo partida hautatutako orduan eta kanalean ikusi ahal izango duzu. Goza ezazu.

## 5- INFORMAZIO XEHEA

### 5.1 Aurreko panela




#### 1 – Egoera adierazten duten pilotua eta infragorrien hartzailea

Berdea	Konektatuta
Gorria	Standby
Berdea keinuka	Abiarazten
Gorria keinuka	Softwarea deskargatzen

#### 2 – txartelaren zirrikitua

Sartu txartela, Deskodeatzaileko zirrikituan, urre-koloreko txipa behera begira duela.


### 5.2 Atzeko panela



3.2. irudia: atzeko panela


- 1 – Eurokonektoreak (TB eta VCR/DVD)
- 2 – SPDIF konektorea: Audio digitala (estereo edo 5.1)
- 3 – RCA konektoreak
- Gorria eta zuria – Audio estereo analogikoa
- 4 – RF konektore modularra IN
- 5 – RF konektore modularra OUT
- 6 – Elikatze-konektorea (12 V CC)

### 5.3 Alde bateko panela



- 1 – On / Off tekla
- 2 – Modua hautatzekoa (bolumena edo kanala gora/behera)
- 3 – Bolumena edo kanala gora/behera

### 5.4 Urrutiko agintea



**1 – On/Off**

Standby/ON tekla.

**2 – Koloredun teklak**

Koloretako teklak: gorria, berdea, horia eta urdina.

**3 – Mirador tekla**

Mirador, ikustaldiko ordainketako zerbitzuaren menua irekitzeko.

**4 – Gezidun teklak**

4 gezi (4 tekla) menuetan eta zerbitzuetan nabigatzeko.

**5 – ATRÁS tekla**

ATRÁS tekla, menuetan atzera egiteko.

**6 – GIDA**

Programazioaren GIDA zerbitzua irekitzeko.

**7 – Kanala +/-**

Kanalak aldatzeko

**8 – Zenbaki-teklak**

Kanala hautatzeko, hari dagokion zenbakia sakatuta, edo menuetan zenbakitutako eremuak editatzeko.

**9 – Konfigurazioko menua.**

Deskodetzailea konfiguratzeko menua irekitzeko.

**10 – Hizkuntza hautatzea**

Audio-pista hautatzeko (erabilgarri badago) edo azpтитuluen pista hautatzeko (erabilgarri badago).

**11 – Bolumena erregulatzea +/-**

Bolumena igotzeko jaisteko.

**12 – Irten (Exit)**

Sakatu edozein menu edo zerbitzutatik irteteko.

**13 – INFO tekla**

Kanal bat ikusten ari zarenean edo kanalaren gidan, aukeren zerrenda bistaratzeko.

**14 – Testua**

Teletestua irekitzeko (hautatutako kanalean baldin badago)

**15 – Isilik**

Soinua aktibatzeko edo desaktibatzeko.

**16 – TB/VCR/STB tekla**

TBn sartzen den seinalea aldatzeko (TBren IM sarrera, STBren TB eurokonektorearen bidez STBren bidegrabagailuaren eurokonektorearen sarrerako seinalearen begizta, STBren TB digitalaren eurokonektorearen seinalea TBra).

## 6 – Segurtasun-argibideak

### Denbora luzez ez erabiltzea eta ekaitz elektrikoak

Kendu Set Top Boxaren entxufea denbora luzez erabili gabe egon behar badu, edo ekaitz elektrikoa baldin badago. Hari konektatutako gainerako gailuei ere entxufea kendu behar zaie.

### Elikatze-iturria

Zehaztapenak 220V~240V CA, 0.5A, 50/60Hz.

Egiaztatu elikatze-kablea ez dagoela kaltetuta. Erabili emandako elikatze-iturria soilik.

### Garbiketa

Kendu Set Top Boxaren entxufea, garbitu aurretik. Erabili zapi leun eta lehor bat.

### Konexioak

Set Top Boxarekin emandako kableak baino ez erabili.

### Kokapena

Telebistatik gertu izan beti Set Top Boxa.

Ekipo elektriko guztiek berotzeko joera izan ohi dute. Set Top Boxak oso bero gutxi sortzen du; hala ere, ekiporik ahulenean kalte txikiak sor ditzake. Jarri babesen bat Set Top Boxaren azpian.

### Kokapena nola erabaki

Jarri Set Top Boxa ongi aireztatuta egongo den lekuan; irekidurek ez dute estalita egon behar. Ez jarri beste aparailu baten gainean.

### Likidoak, eguzkia, beroa

Urrundu Set Top Boxa likidoetatik eta hezetasunetik. Ez jarri inoiz Set Top Boxa berogailuetatik hurbil, ez eta eguzki-argiak zuzenean emango dion lekuan ere.



## 7 - Arazoak konpontzea

Arazoak	Zergatia	Konponbidea
Ez dago irudirik, ez eta soinurik ere	Ez dago elikadurarik.	Egiaztatu elikatze-iturriaren kablea konektatuta dagoela.
	Programa-zerrenda hutsik dago.	Egin kanal-bilaketa.
	Aireko kableak zirkuitulaburra du.	Deskonektatu Set Top Boxa. Aldatu kablea. Konektatu berriro Set Top Boxa.
	Kableek akatsak dituzte edo kableak falta dira.	Egiaztatu kable guztiak eta ordeztu egoera onean ez daudenak.
Soinua du, baina irudirik ez.	Eurokonektorea ez dago behar bezala entxufatuta	Egiaztatu Eurokonektore-konexioak.
Lehen eskuragarri zegoen kanal bat ezin da ikusi.	Seinale eskasa.	Egiaztatu seinale-maila.
	Kanal hori ez dago zure gogoko kanalen zerrendan (baldin eta zerrenda hori sortu baduzu).	Hautatu (botoi horia) telebistako kanalen zerrenda osoa.
	Kanal hori ez da ematen dagoeneko.	Bat ere ez.
Urrutiko agintea ez dabil.	Pilak agortu zaizkio.	Aldatu pilak.
Kanal batzuetan makroblokeak daude (pantailan laukiak daude).	Seinale eskasa.	Egiaztatu seinale-maila.
	Kableek akatsak dituzte, edo kableen barne-instalazioa eskasa da.	Egiaztatu kable guztiak eta ordeztu egoera onean ez daudenak.
Irudia eskasa da, eta ez du kolorerik.	Bideo-formatua ez da behar bezala hautatu.	Konfiguratu bideoaren irteera telebistaren ezaugarrien arabera.

Beste edozein arazo izanez gero, deitu 1718 telefono-zenbakira.

## 8 – Datu teknikoak

---

### **Oinarrizko zehaztapenak**

QAM 16/32/64/128/256 demodulazioa (ETS 300 429)

Abiadura 1,7...7 Mbaudio/s

VHF/UHF euskarria, 7/8 Mhz aldagarria

### **Sarrerak**

Sarrerako frekuentzia-maila: 47...862 Mhz

Sarrerako konektorea: IEC konektore emea

Seinale-maila: -25...-65 dBm

Gutxienerako galera 6dB

### **Irteerak**

2 x Eurokonektore: Compound-a, RGB, L/R Audioa

3x RCA: L Audioa, R Audioa, SPDIF (audio digital optikoa)

RF deribazioa beti aktibatua

### **Elikatze-iturria**

12 V (220 V / 50Hz)

12 watt baino gutxiagoko kontsumoa

### **Xehetasun gehigarriak**

Set Top Boxaren neurriak: 248mm x 147mm x 35mm

Temperatura-tartea: +5° C...+40° C

### **Arauk**

ETS 300 429 Araua

ISO/IEC 13818-1 betetzen duen MPEG2 Transport stream

ISO/IEC 13818-2, -3 betetzen duen DVB-Video/Audio

ETS 300 472 betetzen duen VBI teletestua

IS-13252, IS-13420, LTD20 (1971), IS-14202, IS-14231, IS-6873, IS-9000